

# 1000

GUEKALIZATOK

ZINTZU  
MINTZU

ELKARTEA

■ **EUSKARAREN KALEKO ERABILPENA** %40 igo da Zumarraga eta Urretxun 1989tik 1993. urte bitartean, EKBk bi herrietan egindako kale neurketaren arabera.

1989an euskararen erabilpena % 12koa zen, hots, 16.905 biztanletatik 2.045ek hitz egiten zuten euskaraz kaleko harremanetan. 1993ko neurketaren arabera, berriz, 2.863 herritar dira euskaraz mintzatzen direnak, %17 hain zuzen ere, eta 1989an baino 800 lagun gehiago.

Neurketa egiterakoan lau adin talde hartu ziren kontuan: haur, gazte, heldu eta zaharrak. Euskararen erabilpenean behera egin duen zaharren taldeak izan ezik, gainontzekoek gora egin dute, gazteak nabarmendu direlarik, %127an igo baita gazteen arteko euskararen erabilpena. Egun, 367 gaztek erabiltzen dute euskara kaleko harremanetan.

Datu hauek Joxe Jabier Iñigok, EKBko idazkari nagusiak, eman zituen ezagutzera Zintzo Mintzok antolatutako azken hitzaldian.

■ **UDAL HAUTESKUNDETARAKO ALKATEGAIK:** Zumarraga eta Urretxuko bi alderdi politikok, EAK eta PSE/EEK, ezagutarazi dituzte maiatzaren 28an ospatuko diren udal hauteskundetarako alkategaiak. EAK, kargu honetarako Jose Luis Agirre aukeratu du Zumarragan eta Pello Gonzalez Urretxun. PSE/EEri dagokionez, Antton Arbulu izango da Zumarragako alkategaia eta Francisco Parra Urretxukoa.


Bestalde, EAK Gipuzkoako Diputatu Nagusi kargurako Jose Julian Irizar aukeratu du, egungo Zumarragako alkatea eta Gipuzkoako EAKo Idazkari nagusia.

■ **EUSKAL HERRIKO JAKIEN ERREZETAK ALEMANEZ:** Urretxuk 1992. urtean Alemaniako Schwarzenbruck herriarekin anaiarteko hitzarmena sinatu zuen, bi herrialdetako ohiturak eta folklorea ezagutarazteko asmoz. Schwarzenbruck herriak, Euskal Herriko jaki tipikoak jasoko dituen sukaldaritzako errezeta liburua argitaratu nahi du. Urretxuko udala, errezetak bidaltzeko eskaera jaso orduko, lanean hasi da eta herriko elkarte gastronomiko desberdinekin harremanetan jarri da elkarte bakoitzak errezetak aurkeztu dituzan eskatuz.

Aurkeztutako errezeta guztien artean 15

aukeratu eta Schwarzenbruck herrira bidaliko dira liburua argitaratu dezaten.

■ **URRETXUKO KALE BERRIEN IZENDAPENA:** Azken urteotan Urretxun eraikuntza asko egin dira eta ondorioz plaza eta kale berri ugari sortu dira. Urretxuko udalak toki guzti hauek izendatzeko izenak aukeratu ditu, baina maiatza aldera, osoko bilkuran behin betirako onartuak izan arte, herritarrok, izen horiei buruzko iritzia edo oniritzia eman eta proposamen berriak egiteko aukera dugu, udaletxera joanda.



Asier Osinalde, zumarragar intsumisoa, otsailaren 7an epaitu zuten. Behin betiko sententzia ezagutarazi ez bada ere, fiskalak, bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra eskatu du. Martxoaren 15ean **Iñigo Asensio** eta 16an **Tomas Andueza** epaituko dituzte

■ **ENEKO OREGI,** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketarako Kontseilariordea Zumarragan izan zen otsailean Eusko Jaurlaritzak, Zumarraga, Urretxu, Legazpi eta Ezkioko Mankomunitateak proposatutako Urola Garaiko Hezkuntza profesionaleko gunea Zumarragan kokatzeko egitasmoa onartu edo atzera bota aurretik.

Eusko Jaurlaritzako ordezkaria ingurua, lan egoera eta ikastetxea bertan kokatzeko dagoen beharra ikuskatzera etorri zenean, San Jose eta Legazpi ikastetxeak bisitatu eta herriko enpresari talde batekin bildu zen.

Mankomunitateak aurkezturiko egitasmoaren arabera, Legazpi ikastetxea Urola Garaiko Lanbide Hezkuntzako gunea litzateke eta San Jose ikastetxean, eskola politeknikoa sortuko litzateke.



ALTZARIAK

MERKA-UROLA


## Liburutegiak, tresiloak eta logelak

Mugitegi 17  
20700 URRETXU

Telefono eta Faxa: 72 58 28



## Mozorrotzeko asmorik bai?



Bittor Areizaga

Momentuz ez dut ezer pentsatu baina azkeneko momentuan mozorrotuko naizela uste dut. Beti azkeneko momentuan jazten naiz. Aurten, azkeneko urteetan ez bezala, asteartean hemen izango naiz.



Gorka Garmendia

Bai, izotz gaineko Hockey jokalaria jantziko naiz asteartean eskolara joateko. Horrela jantzita ni bakarrik joango naiz.



Mariasun Arsuaga

Ez, ez daukat jazteko asmorik. Ni, neu, nahiko *karnabal* naiz. Nahiko *karnabalera* noa egunero, eta ez daukat mozorrotu beharrik.



Jesus M. eta Aiala Urbegain

Ez daukagu asteburu honetan mozorrotzeko asmo handirik. Asteartean ikasleekin indio jantziko naiz. Behin gure umearekin hirurok pailazoz mozorrotzea pentsatu genuen, baina oraindik ez dugu egin.

Aizpurutxoko Ule baserrian jaioa. Hiru alaba seme bat eta bi biloba ditu. 18 urterekin Barreiro jatetxean lan egitera etorri zen Zumarragara. 26 urte daramatza Juanitorekin batera Aitube tabernan



Ezkiotarraneko Dominika zenarekin lapiko arteko lanak ikasi ondoren, lanean gogor aritu da urteetan, lanak ez baitio inoiz beldurrik eman.

Barreiron jai egunik gabe eta lau ordu lo eginez urtebete egin zuen honek, gaur egunean ere taberna goizeko zazpietarako irekitzen dutela adierazi du.

Herritarren ohiturak asko aldatu direla aitortzen du, garai batean aste barruan goizeko hiruretan jendea etxera bidali ezinik ibiltzen zen. Egun, ordea, batez ere larunbata gauean egiten dela lanik gehien dio. Edariei dagokienez, ere antzeman du aldaketa, lehen, gaur egunean ez bezala, kopa asko hartzen baitzen.

Jubilatzeko asmorik ez du, tabernan, jendearekin egonez indarberitzen baita eta burukomin guztiak joaten baitzaizkio.

KLARA LETE

ISkin

Poltsak, usaingarriak eta bitxiteria

Elizkale 17 20700 ZUMARRAGA

ITURGINTZA



LUIS ANGEL

Berogailuak eta gasa  
Sukalde eta komonakDeskargarako bidea, z/g.  
Tel. eta Faxe: 72 54 59 20700 URRETU

ARTURO

Artistentzako materialeak  
EskulanakIpeñarrieta, 4 • Tel. 72 14 20  
URRETU

ESKAINTZAK

CAPADOCIA

ALFONBRAK - KILIM - CICIM - SUMAK

Zuzeneko inportatzailea

Konponketak egiten dira

Labeaga 12, etxeazpia 20700 URRETU  
Tel.: 72 24 09

JAKA

KRISTALDEGIA

Ipeñarrieta 18  
20700 URRETU Tel.: 72 14 13

Balentina. JATETXEA

Urola, 6 • Tel. 72.50.41  
ZUMARRAGA (Gipuzkoa)



## EUSKAL HERRIKO BEHIRIK ONENA HAZI DU DONARDEGIKO JOXE MIEL ELGARRESTAK

**1983 . urtean, esnetarako behiak kendu eta haragitarakoak ekarri zituen Donardegiko Joxe Mielek. Egun, 38 behi, bigantxa, txahal eta idisko buru ditu etxean, baina etorkizunean kopuru hau handitzea gustatuko litzaioke. Aldaba eta Beizamako beste bi baserritarrekin batera Frantziatik, haragitarako berezia den limusin arrazako behiak ekartzen lehenengoetarikoa izan zen. ITSASLUR ganadu txapelketan 3 sari eskuratu zituen. LABELen sartua dago eta saltzen duen haragia konfidantza osokoa da. Ordiziako Nekazal Ganbarako idazkaria ere bada, Joxe Miel Elgarresta**

Haragitarako behiak ekartzeko garaian bertako pirenaika edo Frantziako limusin arrazen artean zalantzarik izan bazuen ere, azkenekoa aukeratu zuen Joxe Mielek formaz, haragitarako hobe ote zen iruditu zitzaiolako eta asmatu zuela esan daiteke. Azaroan, Bilbon ospatu zen ITSASLUR, Euskal Herri mailako ganadu txapelketan, hiru sari lortu baitzituen. Aurreneko saria behietan eta bi bigarrenko bigantxetan. Pozik dago ferietako saririk garrantzitsuena, behietan irabazle suertatzea alegia, aurten berak jaso duelako.

ITSASLUR txapelketa honetan Euskal Herrian sortu eta hazitako abereak onartzen dira bakarrik eta baloratzeko garaian batez ere, abereak duen luzera, zabalera eta altueraren arteko armonia hartzen da kontuan. Saria lortzeko ez omen du ezer berezirik egin, etxeko ganadu guztietatik onenak etxean luzaroan mantendu eta

txapelketara aurkeztu besterik ez. Behiak, neurri handian, silo, lasto eta pulpaz bazkatzen ditu eta Lurgintza Kooperatibak behiek urtero txekor bat izateko behar duten elikadura aukeratzen laguntzen dio.

LABELean sartua dago eta horretarako baldintza bakarra, haragia ahalik eta era naturalenean egitea dela

adierazi du. LABELak duen abantailarik nagusia, norberak erosleri ematen dion konfidantza dela ere esan du. LABEL bezala erosten den haragiak kontrol gogorak jasaten ditu. Aberea bizirik dagoen bitartean inongo gaitzik izan duen aztertzen da eta pentsuan gauza zikinik nahastu den ere kontrolatzen da. Hiltegia azterketa gehiago egiten dira.

Apiriletik udazkena arte larrean ibiltzen da gure etxeko ganadua. Aurten azaroa eta abenduan ere kanpoan ibili da

Eroslea lasai egon daiteke beraz, eta kalitate oneko haragia, era naturalean egindakoa, erosten duenaren segurtasuna izan dezake.



Donardegiko behiak ikuiluan



**ZURICH**  
Aseguruak

Tel.: 72 37 76 Faxa: 72 53 46  
Labeaga 33-G etxeazpia 20700 URRETXU

**Baskotour**  
bidaiak

Berandu gabe, gorde ezazu  
Aste Santurako Bidaia!

S. Esnaola 28  
20700 ZUMARRAGA Tel.: 72 24 09

**ALBAITARITZA KLINIKA**



Ana Alustiza Zabaleta

Filipinas Uharteak, 5  
20700 ZUMARRAGA Tel.: 72 49 26



**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA Tel.: 72 59 71



**ARGIKI**

**PARRA anaiak C.B.**

S. Esnaola 6, etxeazpia  
Tel.: 72 41 64  
20700 ZUMARRAGA



**PALACIO ORIENTAL**  
Jatetxe txinatarrak

Txinatar sukaldaritzarik onena

Tel.: 72 52 43  
Labeaga 33-H etxeazpia 20700 URRETXU



# KONTUAN HARTZEKO

## MENDI IRTEERAK

**Martxoak 4:** Ostadar eta Goierri Mendi taldeek, Altube eta Barazar mendateen arteko uren banalerrora antolatutako mendi irteera.

**Martxoak 12:** Ostadar Mendi Taldeak Elizondo, Etxalar eta Bera herrietako mendietara antolatutako mendi irteera.

**Martxoak 26:** Goierri Mendi Taldeak Iparralde inguruko mendietara antolatutako irteera.

## IKASTAROAK

• Urola Garaiko Gurutze Gorriak, edozein larrialdiren aurrean zer egin ikasteko **lehen laguntzetarako** ikastaroa antolatu du. Martxoaren 6an hasi eta 15 egunetzat izatuko da.

• **MIREN AZKARATE**ren eskutik, **AKATSAK... ZUZENDUZ** euskarako ikastaroa antolatu du Zintzo Mintzok martxoaren 2, 9, 16 eta 22rako. Urretxuko Kultur etxean izango da ilunabarreko 7etan. Izena emateko dei 72 57 75 telefono zenbakira.

## ERAKUSKETAK

**Martxoaren 3tik 12ra** bitartean zeramika erakusketa izango da Urretxuko Aldaketa erakustokian.

**Martxoaren 21etik 26ra** bitartean Iñurategi anaien **GAILURRETAN** izeneko erakusketa ikusgai egongo da Urretxuko Kultur Etxean. Pagoeta Antzokian, berriz, diapositiba emanaldiak eskainiko dituzte.

## KONTZERTUAK

**Martxoak 30:** Musika eskolako ikasleen kontzertua jubilatuentzat Gure Txoko egoitzan, arratsaldeko 6:30etan.

**Martxoak 31:** LIPS soinu-jole errusiarraren kontzertua Pagoeta Antzokian, ilunabarreko 7:30etan.

## DANTZALDIAK

**Otsailak 28:** **DRINDOTS** taldearen dantzaldia arratsaldeko 5:30etan. Bi herrietako Kultura Batzordeek antolatuta. Eguraldiak lagundu ezkerro Areizaga-Kalebarren plazan, bestela Ederrena pilotalekuan izango da.

## KORRIKA 9

**Martxoak 23:** 17an Donibane Garazin hasi eta 26an Gasteizen bukatuko den **KORRIKA 9** edizioa bi aldiz igaroko da Zumarraga-Urretxutik.

Otamotz aldizkaria etxean dohainik jaso nahi nuke:

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Moztu eta bidali datuak Labeaga 12, etxeazpira (Aterpe zena) Urretxu edo deitu arratsaldetan 72 57 75era

# ZORIONAK



Ane Cruz, 10 urte beteko ditu martxoaren 4an. Gainzuri ikastetxeko OHoko zortzigarren mailan ari da.



Xabier Zelaia, 14 urte beteko ditu martxoaren 8an. Lourdesko Ama ikastetxeko OHoko laugarren mailakoa.



Xabier Jorge, 7 urte beteko ditu martxoaren 8an. Gainzuri ikastetxeko OHoko lehenengo mailan ari da.



Asier Mantecón, 11 urte beteko ditu martxoaren 9an. Lourdesko Ama ikastetxeko OHoko bostgarren mailakoa.



Leire Mujika, 10 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Lourdesko Ama ikastetxeko OHoko laugarren mailakoa.



Xabier Calleja, 11 urte beteko ditu martxoaren 22an. Gainzuri ikastetxeko OHoko bostgarren mailan ari da.



## ALTAMIRA LANTEGIAK ZERBITZU OFIZIALA

Gure erakusketan zain gauzazue!

Iparragirre, z/g (Azkoitirako bidea)  
Tel: 72 33 71 20700 URRETXU




## RENEDO argazkiak

Labeaga 52-54 F 20700 URRETXU  
Tel: 72 56 82 72 22 92



Iparragirre, z/g (Azkoitirako bidea)  
20700 URRETXU

Tel: 72 04 18  
Etxekoa: 72 28 19



Gernikako Arbola plaza 5, behe A  
20700 URRETXU  
Tel: 72 59 71